# Xedapen Orokorrak

**HERRIZAINGO SAILA**

**857**

AGINDUA, 2010eko otsailaren 5ekoa, Herrizaingoko sailburuarena, Ertzaintzaren egitura berria onetsi, eta, beraz, 2006ko martxoaren 15eko Aginduan onartutako orain arteko egitura aldarazten duena.

Honako aginduaren bidez, Herrizaingo Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretua indarrean jartzearen ondorioz Ertzaintzaren egitura organikoan eragindako aldaketak egiten dira.

Agindu honen helburua da egitura berria sortzea, Ertzaintzak ematen dituen zerbitzuak hobetzeko. Horretarako, honako alorretan banatzen da:

– Ikuskatzailetza eta Administrazio Alorra. Honako hauen zeregin eta jarduerak biltzen ditu: gaur egun arte, Ikuskatzailetza Orokorraren Alorrak egindakoak; Polizia Administrazioaren Unitatearenak (LAZLZ salbu, Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Alorrean sartuko baita), organikoki, Segurtasun Sailburuordetzaren Kabineteko Zuzendaritzaren mendeko zenarenak; Idazkaritza Teknikoko Unitatearenak, organikoki, Ertzaintzaren Zuzendaritzaren mendeko zenarenak; Musika Bandarenak.

– Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Alorra. Aurreko Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Alorra osatzen zuten unitateek osatzen dute (honako hauek salbu: Lehergailuak Indargabetzeko Unitatea, Terrorismoaren Aurkako eta Informazioko Alor berrian sartuko baita; Segurtasun Pribaturako Unitatea, Krimen Gaietarako Poliziaren Alorrean sartuko baita; Trafikoko Lurralde Unitatea, Trafiko Alorrean sartuko baita; Musika Banda, Ikuskatzailetza eta Polizia Administrazio Alorrean sartuko baita). Larrialdiei Aurregiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritzari Laguntzeko Zerbitzua (LAZLZ) alor honen Agintaritza eta Kontrol Zentro Nagusiaren Unitatean sartuko da.

– Trafiko Alorra; bertan, Trafikoko hiru Lurralde Unitateak sartuko dira.

– Krimen Gaietarako Poliziaren Alorra; bertan, Segurtasun Pribaturako Unitatea sartzen da eta desagertuko den Informazio eta Azterketa Unitateak egindako zereginak bereizten dira.

– Terrorismoaren Aurkako eta Informazioko Alorra. Batetik, Informazio eta Azterketa Alorraren zereginak bereganatuko ditu, desagertu egingo baita eta,

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

**857**

ORDEN de 5 de febrero de 2010, del Consejero de Interior, por la que se aprueba la nueva estructura de la Ertzaintza, modificando el contenido actual a la aprobada por Orden de 15 de marzo de 2006.

A través de la presente Orden se procede a realizar las modificaciones que afectan a la estructura orgánica de la Ertzaintza, una vez en vigor el Decreto 471/2009, de 28 de agosto, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior.

Esta Orden tiene por objeto configurar una nueva estructura que mejore el conjunto de servicios que presta la Ertzaintza, a cuyo fin se estructura en las siguientes Divisiones:

– La División de Inspección y Administración que aglutina las funciones y actividades llevadas a cabo, hasta la fecha, por la División de Inspección General, la Unidad de Administración Policial (a excepción de SADAE que pasa a integrarse dentro de la División de Seguridad Ciudadana y Recursos Operativos) que dependía orgánicamente de la Dirección del Gabinete de la Viceconsejería de Seguridad, la Unidad de Secretaría Técnica que dependía orgánicamente de la Dirección de la Ertzaintza y la Banda de Música.

– La División de Seguridad Ciudadana y Recursos Operativos que está integrada por las Unidades que venían conformando las anteriores Divisiones de Seguridad Ciudadana y Recursos Operativos (a excepción de la Unidad de Desactivación de Explosivos que se incorpora a la nueva División Antiterrorista y de Información, la Unidad de Seguridad Privada que pasa a formar parte de la División de Policía de lo Criminal, las Unidades Territoriales de Tráfico que se incorporan a la División de Tráfico y la Banda de Música que se incorpora a la División de Inspección y Administración Policial). El Servicio de Apoyo a la Dirección de Atención de Emergencias y Protección Civil (SADAE) pasa a integrarse dentro de la Unidad de Centro de Mando y Control de esta División.

– La División de Tráfico en la que se incorporan las tres Unidades Territoriales de Tráfico

– La División de Policía de lo Criminal en la que se incorpora la Unidad de Seguridad Privada y de la que se desgajan las funciones realizadas por la Unidad de Información y Análisis que desaparece.

– La División Antiterrorista y de Información que asume, por una parte, las funciones de la Unidad de Información y Análisis que desaparece como tal y,

bestetik, Ekintzetarako Baliabideen Alorreko Lehergailuak Indargabetzeko Unitatea.

Horrenbestez, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 107.2 artikuluan eman zaidan eskumena erabiliz, ondokoa

EBATZI DUT:

***1. artikulua***.– Ertzaintzaren egitura berria onestea, agindu honen eranskinean azaltzen den moduan.

***2. artikulua***.– Agindu honen eranskinean zenbait alor eta unitateren egitura berria azaltzen da. Alor eta unitate horien mendekotasun organikoak honakoak dira: a) Ikuskatzailetza eta Administrazio Alorra Segurtasuneko sailburuordearen mendeko da, zuzenean, eta Segurtasun Sailburuordetzako Kabineteko Zuzendaritzaren eta Ertzaintzako Zuzendaritzaren mendeko, funtzionalki, Herrizaingo Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuan Zuzendaritza horiei esleitutako zeregin eta eskumenak garatzeko. b) Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Alorra, Trafiko Alorra, Krimen Gaietarako Polizia Alorra eta Terrorismoaren Aurkako eta Informazioko Alorra Ertzaintzaren Zuzendaritzaren mendeko dira.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, agindu honen aurka berraztertzeko aukerako errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Herrizaingoko sailburuaren aurrean hilabeteko epean, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Auzietako Salaren aurrean bi hilabeteko epean. Bi kasuotan, errekurtsoak jartzeko epeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta ondorengo egunetik hasiko dira.

***Bigarrena***.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 5a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

ERANSKINA

ERTZAINTZAREN EGITURA

I.– Ikuskatzailetza eta administrazio alorra.

Zeregin nagusia honakoa da: jarduketa-eremuetan administrazio- eta kudeaketa-prozedurak tramitatzea, harremanak bideratzea eta Herrizaingo Sailaren Zu-

por otra, la Unidad de Desactivación de Explosivos de la División de Recursos Operativos.

Por lo anterior, en virtud de la competencia prevista en el artículo 107.2 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco,

RESUELVO:

***Artículo 1***.– Aprobar la estructura de la Ertzaintza como figura en el anexo a la presente.

***Artículo 2***.– Las dependencias orgánicas de las Unidades y Divisiones cuya estructura se recoge en el anexo a la presente Orden son las siguientes: a) La División de Inspección y Administración depende, directamente, del Viceconsejero de Seguridad y, funcionalmente, de la Dirección del Gabinete de la Viceconsejería de Seguridad y de la Dirección de la Ertzaintza para el desarrollo de aquellas funciones y competencias que en el Decreto 471/2009, de 28 de agosto, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior están atribuidas a dichas Direcciones y b) la División de Seguridad Ciudadana y Recursos Operativos, la División de Tráfico, la División de Policía de lo Criminal y la División Antiterrorista y de Información dependen de la Dirección de la Ertzaintza.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Interior en el plazo de un mes o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses. En ambos casos los plazos de interposición se contarán a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda***.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de febrero de 2010.

El Consejero de Interior,
RODOLFO ARES TABOADA.

ANEXO

ESTRUCTURA DE LA ERTZAINTZA

I.– División de inspección y administración.

Tiene como función principal la tramitación de procedimientos administrativos y de gestión en diferentes ámbitos de actuación, la canalización de las

zendaritzekin koordinatzea, bai eta beste erakunde-organismo batzuekin eta beste polizia-kidego batzuekin ere, agindu honen bidez gainerako polizia-alorrei emandako eskumenak gorabehera, eta Ertzaintzaren zerbitzua etengabean hobetzeko antolaketarako eta lanerako prozedurak ezartzea.

Alor hau bi funtzio-egitura nagusitan osatzen da: Diziplinarena eta Plangintzarena eta Administrazio eta Zerbitzuena; horiek, batetik, Segurtasuneko sailburuordeari bere zereginak betetzen laguntzeko langileak eta beharrezko baliabideak izango dituzte eta, bestetik, Segurtasun Sailburuordetzako Kabineteko zuzendariari eta Ertzaintzaren zuzendariari Herrizaingo Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren bidez esleitutako zeregin eta eskumenak garatzen laguntzeko langileak eta beharrezko baliabideak.

Aipatutako egiturek, aldi berean, honako unitateak dituzte:

I.1.– Diziplinazkoa eta plangintza.

1.– Diziplina Unitatea.

Ertzaintzako funtzionarioen lanbide-jokabideen ikerketak zuzendu, koordinatu eta garatzen ditu, aintzat hartu behar direnak bultzatzeko eta legearen edo lanbide-etikaren aurkakoak prebenitzeko.

Halaber, Ertzaintzan diziplina-politika zehaztu, koordinatu, bultzatu eta garatzen du, prebentzio-neurriak ezarriz eta diziplina-prozedurak izapidetu eta ebazteko irizpideak aplikatuz. Era berean, Ertzaintzako funtzionarioak inplikaturik dauden zigor-izaerako dilijentzia judizialen gaineko kontrola eta jarraipena egiten du.

2.– Plangintza Unitatea.

Ertzaintzaren zerbitzuen hobekuntza sustatzea du helburu, ebaluazio- eta berrikuspen-jardueren bidez, eta, Segurtasuneko sailburuordeari jarduera horiek jakinarazteaz gain, jarduerok garatzen laguntzen dio eta, kalitate-estandarren arabera, baita antolakuntza- eta objektibazio-prozedurak aplikatzen ere.

Kalitatearen Kudeaketa Sistema garatzeko ardura du, bai eta Ertzaintzaren zerbitzuen ikuskaritza sustatzeko, koordinatzeko eta garatzeko ardura ere. Era berean, beharrak antzeman eta Ertzaintzan prestakuntza-planak garatzeko irizpideak proposatuko ditu. Aldi berean, informazio-lanak egingo ditu eta komunikabideekin harremanetan jardungo du, Harreman Sozialak Komunikabideekin Bideratzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan.

I.2.– Administrazioa eta zerbitzuak.

relaciones y coordinación con las Direcciones del Departamento de Interior, con otros organismos institucionales y con otros cuerpos policiales, sin perjuicio de las competencias atribuidas en esta Orden al resto de Divisiones policiales, así como la implantación de procedimientos de organización y trabajo que promuevan la mejora constante del conjunto de servicios de la Ertzaintza.

Esta División se conforma en dos grandes estructuras funcionales: la Disciplinaria y Planificación y la de Administración y Servicios, que contarán con el personal y recursos necesarios para asistir, por una parte, al Viceconsejero de Seguridad en sus tareas propias y, por otra, al Director del Gabinete de la Viceconsejería de Seguridad y al Director de la Ertzaintza en el desarrollo de las funciones que les atribuye a los mismos el Decreto 471/2009, de 28 de agosto, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior.

Las estructuras citadas, a su vez, comprenden las siguientes Unidades:

I.1.– Disciplinaria y planificación.

1.– Unidad Disciplinaria.

Dirige, coordina y desarrolla investigaciones respecto de la conducta profesional de los funcionarios de la Ertzaintza para potenciar aquéllas susceptibles de reconocimiento y prevenir las contrarias a la ley o a la ética profesional.

Así mismo tendrá la misión específica de apoyar y colaborar en la definición, coordinación, impulso y desarrollo de la política disciplinaria en la Ertzaintza, articulando medidas preventivas y estableciendo y aplicando criterios para la instrucción y resolución de procedimientos disciplinarios. También ejerce el control y seguimiento de diligencias judiciales de carácter penal en las que se hallen incursos funcionarios de la Ertzaintza.

2.– Unidad de Planificación.

Tiene la función principal de promover la mejora constante del conjunto de servicios de la Ertzaintza mediante actuaciones de evaluación y revisión, informando y apoyando al Viceconsejero de Seguridad en el desarrollo de las mismas y en la aplicación de procedimientos de organización y objetivación de la función policial conforme a estándares de calidad.

Es la encargada de desarrollar el Sistema de Gestión de la Calidad, de impulsar, coordinar y desarrollar la inspección de los servicios de la Ertzaintza. Así mismo, detectará necesidades y propondrá criterios para el desarrollo de los planes de formación en la Ertzaintza. Desarrollará, a su vez, las tareas de información y relación con los medios de comunicación en coordinación, en su caso, con la Dirección de Relaciones Sociales con los Medios de Comunicación.

I.2.– Administración y servicios.

1.– Administrazio Unitatea.

Ertzaintzaren zuzendariari zuzeneko laguntza emateko ardura du, zuzendari-zereginen kudeaketa arruntean. Era berean, giza baliabideen, materialen eta azpiegituren eremuetan planak proposatzeko ardura izango du, ahalik eta eraginkorrena izateko eta Ertzaintzaren elkarrizketa arrunta mantentzeko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren Zuzendaritzekin.

Giza Baliabideen Zuzendaritzarekin eta Euskal Herriko Polizia Ikastegiarekin elkarrizketak mantentzeko organo arduraduna izango da, eremu horretako langile guztiak kudeatzeko; halaber, Kudeaketa Ekonomiko eta Kontratazioko Zuzendaritzarekin eta Baliabide Tekniko eta Azpiegituren Zuzendaritzarekin elkarrizketak mantentzeko organoa da, material arrunt eta hornidura-materialen baliabideak, ibilgailuak, instalazioak eta sistema eta informatika-materiala kudeatzeko. Bestalde, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin, Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzarekin eta segurtasun-arloko beste organismo eta erakunde arduradun batzuekin elkarrizketak mantentzeko organoa izango da.

2.– Zerbitzu Unitatea.

Segurtasun Sailburuordetzaren Kabineteko zuzendariari zuzeneko laguntza emateko ardura du, zuzendari-zereginen kudeaketa arruntean. Modu berean, polizia-jarduera kudeatzeko datuak biltzeko ardura izango du; horretarako, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta horien aldaketa, galera, tratamendua edo baimenik gabeko sarrera saihesteko beharrezko antolaketa-neurriak hartuko ditu.

Segurtasuneko sailburuordeari laguntza emango dio, bideokamerak erabiltzeko baimenen eta kontrolaren gainean. Lanbide-txartela emateko eta kontrolatzeko ardura izango du, bai eta armak eta dagokion dokumentazioa emateko eta kentzeko tramiteak egiteko, erreserbatutako matrikulak kudeatzeko eta barne-kontrolerako segurtasun-mekanismoak ezartzeko ardura ere.

Ertzaintzako kideei omenaldiak egiteko eta esker onak adierazteko ekitaldi ofizialak eta protokoloekitaldiak egiten lagunduko du, bai eta Musika Bandaren kudeaketan ere, sailburuaren Kabineteko Zuzendaritzari arlo horretan emandako eskumenak gorabehera.

Azkenik, erakunde arteko harremanak bideratuko ditu polizia-kidego eta –administrazio interesgarriekin eta haien arduradunekin, eta Europar Batasuneko polizien arteko koordinaziorako prozesuen jarraipena egingo du.

II.– Herritarren segurtasunerako eta ekintzetarako baliabideen alorra.

Alor honen zeregin nagusiak hauek izango dira:

1.– Unidad de Administración.

Es la Unidad encargada de dar apoyo directo al Director de la Ertzaintza en la gestión ordinaria de sus funciones directivas. Así mismo, será la responsable de proponer planes en los ámbitos de recursos humanos, materiales e infraestructuras con el fin de buscar su mayor eficacia, y de mantener la interlocución ordinaria de la Ertzaintza con las Direcciones de la Viceconsejería de Administración y Servicios.

Será el órgano de interlocución con la Dirección de Recursos Humanos y con la Academia de Policía del País Vasco para la gestión de todo el personal incluido en este ámbito, con la Dirección de Gestión Económica y Contratación y con la Dirección de Recursos Técnicos e Infraestructuras para la gestión de los recursos referidos a materiales ordinarios y de suministro, parque móvil, instalaciones y sistema y material informático. Será también el órgano de interlocución con la Dirección de Atención a las Victimas del Terrorismo, Dirección de Régimen Jurídico y Servicios, y otros organismos e instituciones responsables en materia de seguridad.

2.– Unidad de Servicios.

Es la Unidad encargada de dar apoyo directo al Director del Gabinete de la Viceconsejería de Seguridad en la gestión ordinaria de sus funciones directivas. Así mismo, será la responsable de la elaboración de datos para la gestión de la actividad policial, adoptando las medidas organizativas necesarias para garantizar la seguridad de los datos de carácter personal y evitar su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado.

Prestará auxilio al Viceconsejero de Seguridad en las funciones de autorización y control del uso de videocámaras. Se encargará de la expedición y control del carnet profesional, de la realización de los trámites relacionados con la entrega y retirada de armas y documentación correspondiente, de la gestión de matriculas reservadas y del establecimiento de mecanismos de seguridad para el control interno.

Colaborará en la realización de actos oficiales y protocolarios relacionados con homenajes y reconocimientos a miembros de la Ertzaintza y en la gestión de la Banda de Música, sin perjuicio de las competencias atribuidas a la Dirección del Gabinete del Consejero o la Consejera en esta materia.

Por último, canalizará las relaciones de índole institucional con Cuerpos y Administraciones policiales de interés y sus responsables, así como el seguimiento de los diferentes procesos de coordinación policial en la Unión Europea.

II.– División de seguridad ciudadana y recursos operativos.

Las funciones principales de la División serán:

– Ordena publikoa eta herritarren segurtasuna prebenitu, mantendu, eta, hala badagokio, berrezartzea.

– Trafikoa eta errepide-garraioa zaintzea eta kontrolatzea, bere eskumenen esparruan eta Trafiko Alorrarekin lankidetzan.

– Krimen Ikerkuntza eta Azterketaren zereginak egitea, Lurralde Unitateen bidez.

– Ertzaintzaren egitura osatzen duten gainerako Unitate eta Alorrei laguntza espezializatua ematea, bere Unitate eta Zerbitzu espezifikoen bidez.

Alor hau bi funtzio-egitura nagusitan osatzen da: Herritarren Segurtasunerako Arloa eta Babeserako eta Ekintzetarako Baliabideen Arloa; arlo bakoitzak beharrezko langileak eta zerbitzuak ditu Alorreko Burutzari laguntzeko bere jarduera propioetan eta bere eskumenekoa den Polizia Jarduera Kudeatzeko Sistema koordinatu, gainbegiratu eta kontrolatzeko zereginetan eta esleituta dituen giza baliabideak eta baliabide materialak koordinatzeko lanean.

Aipatutako egiturek, aldi berean, honako unitate, atal eta zerbitzuak dituzte:

II.1.– Herritarren segurtasuna.

Zeregin hauek dagozkio: Arloaren jarduerak koordinatu eta gainbegiratzea, bere eskumenekoa den Polizia Jarduera Kudeatzeko Sistema kontrolatzea eta esleituta dituen giza baliabideak eta baliabide materialak planifikatzea.

1.– Agintaritza eta Kontrol Zentro Nagusiaren Unitatea.

Bere zeregin espezifikoa Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Alorreko Burutzari laguntzea da, Alorreko polizia-operatiboak eta ohiko polizia-jarduera planifikatu, zuzendu, koordinatu, gainbegiratu eta kontrolatzen.

Halaber, Lurraldeetako Agintaritza eta Kontrol Zentroak antolatu eta kontrolatu egiten ditu. Era berean, Zentro horiek, laguntza emango diete Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Alorreko Unitateei eta Lurralde Burutzei, Trafiko Alorraren mendeko unitateei eta gainerako Alorrei, horrela ezartzen denean. Zeregin hori gauzatuz, polizia-baliabideak eta –zerbitzuak koordinatuko ditu, kanpoko deiak bideratuko ditu, gorabeherak izapidetuko ditu, taktikak eta protokoloak aplikatuko ditu, jarduerak gainbegiratuko ditu, eta informazioa emango die dagozkien organoei.

1.1.– Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritzari Laguntzeko Zerbitzua (LAZLZ).

Agintaritza eta Kontrol Zentro Nagusiaren Unitatearen mendekoa da, eta Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritzari laguntza ematen dio larrialdiak kudeatzeko sistemen erabilpenean.

– La prevención, mantenimiento y, en su caso, restablecimiento del orden público y la seguridad ciudadana.

– La vigilancia y control del tráfico y transporte por carretera, en el ámbito de sus competencias y en coordinación con la División de Tráfico.

– La ejecución de las funciones de Investigación y Análisis Criminal que correspondan, a través de las Unidades Territoriales,

– El apoyo y asistencia especializada a través de sus Unidades y Servicios específicos, al resto de Unidades y Divisiones que conforman la estructura de la Ertzaintza.

Esta División se conforma en dos grandes estructuras funcionales coordinadas: la de Seguridad Ciudadana y la de Protección y Recursos Operativos, que contarán con el personal y servicios necesarios para asistir a la Jefatura de División, en sus actuaciones propias y en las tareas de coordinación, supervisión y control del Sistema de Gestión de la Actividad Policial de su competencia y la planificación de los recursos humanos y materiales que tenga asignados.

Las estructuras citadas, a su vez, comprenden las siguientes Unidades, Secciones y Servicios:

II.1.– Seguridad ciudadana.

Le corresponden las tareas de coordinación y supervisión de las actuaciones del Área, el control del Sistema de Gestión de la Actividad Policial de su competencia y la planificación de los recursos humanos y materiales que tenga asignados.

1.– Unidad de Centro de Mando y Control Central.

Tiene como misión específica la asistencia a la Jefatura de División de Seguridad Ciudadana y Recursos Operativos en la planificación, dirección, coordinación, supervisión y control de la actividad policial ordinaria y de los operativos policiales de la División.

Asimismo, tiene la función de organización y control de los Centros de Mando y Control Territoriales. Estos Centros, a su vez, asistirán a las Jefaturas Territoriales y Unidades de la División de Seguridad Ciudadana y Recursos Operativos, a las unidades dependientes de la División de Tráfico y al resto de Divisiones cuando así se establezca. Ejerciendo esta función, coordinará los recursos y servicios policiales, canalizará las llamadas externas, tramitará incidentes, aplicará las tácticas y protocolos, supervisará las actuaciones e informará a los órganos correspondientes.

1.1.– Servicio de Apoyo a la Dirección de Atención de Emergencias y Protección Civil (SADAE).

Con la dependencia orgánica de la Unidad de Centro de Mando y Control Central, tiene como misión específica la de apoyar a la Dirección de Atención de Emergencias y Protección Civil en la operación de los sistemas de gestión de emergencias.

2.– Ertzaintzaren Lurralde Burutzak.

Herritarren segurtasunaren eta krimen-ikerkuntza eta –azterketaren arloan, poliziaren jarduerak, bere eskumeneko zerbitzu, atal eta ertzain-etxeek egindakoak, planifikatu, koordinatu eta zuzendu egiten dituzte, bakoitzak bere lurralde historikoaren mugartean.

Lurralde burutzek honako zerbitzuak dituzte euren eginkizunak betetzeko: Poliziaren Jarduera Kudeatzeko Sistema ikuskatu eta kontrolatzeko behar diren zerbitzuak eta horretarako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak, herritarren segurtasunaren, plangintza eta kudeaketaren eta krimen-ikerkuntza eta -azterketaren arloetan, eta Lurraldeetako Agintaritza eta Kontrol Zentroen laguntza.

2.1.– Ertzain-etxeak.

Herritarrei segurtasuna, babesa eta laguntza ematen dizkiete, bakoitzak bere barrutian. Poliziaren jarduerak antolatu eta garatuz, ordena publikoa eta herritarren segurtasuna zaintzeko prebentzio- eta mantentze-lanak egiten dituzte, behar izanez gero, ordena eta segurtasuna berrezartzen dituzte, trafikoa eta bide-segurtasuna zaindu eta kontrolatu egiten dituzte, erakundeak zaintzen dituzte, zuzenean edo zaintzaren ardura duten segurtasun pribatuko zerbitzuei laguntza emanez, presoak eta zigortuak Euskal Autonomia Erkidegoko espetxe batetik bestera eramaten dituzte, eta krimenak ikertu eta aztertzen dituzte zeinek bere lurralde-eremuan. Gainera, barne-arauak eta polizia-arauak betearazten dituzte Euskal Herriko Poliziaren Ikastegian.

Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoa ertzain-etxeen zaintzapean dago. Honakoak dira:

2.1.1.– Araban.

– Laguardiako ertzain-etxea. Mañueta, Berantevilla, Bernedo, Elciego, Bilar, Kripan, Bastida, Lagrán, Laguardia, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreda Araba, Navaridas, Oion, Urizaharra-Peñacerrada, Samaniego, Eskuernaga, Iekora eta Zambrana.

– Laudioko ertzain-etxea. Amurrio, Artziniega, Aiara, Laudio, Okondo, Urduña, Orozko eta Gaubea.

– Vitoria-Gasteizko ertzain-etxea. Alegría-Dulantzi, Armiñón, Arraia-Maeztu, Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Kanpezu, Kuartango, Elburgo, Harana, Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Lantarón, Legutiano, Ribera Alta, Erribera Beitia, Añana, Agurain, San Millan, Urkabustaiz, Vitoria-Gasteiz, Zalduondo, Zigoitia eta Zuia.

2.1.2.– Bizkaian.

2.– Jefaturas Territoriales de la Ertzaintza.

Ubicadas en cada uno de los Territorios Históricos, tienen la misión de planificar, coordinar y dirigir las actividades policiales, tanto de seguridad ciudadana, como de investigación y análisis criminal, llevadas a cabo por las Comisarías, Secciones y Servicios de su competencia en cada uno de ellos.

Para el ejercicio de sus funciones, estarán dotadas del personal y servicios necesarios para la supervisión y control del Sistema de Gestión de la Actividad Policial, así como de los recursos humanos y materiales necesarios, con áreas de seguridad ciudadana, planificación y gestión, investigación criminal y análisis criminal, contando, además con el apoyo y asistencia de los Centros de Mando y Control Territoriales.

2.1.– Comisarías.

Tienen como misión proporcionar seguridad, protección y auxilio a los ciudadanos en el ámbito de su demarcación territorial, planificando y desarrollando las actividades policiales ejerciendo funciones de prevención, mantenimiento y en su caso, de restablecimiento del orden público y de la seguridad ciudadana, de vigilancia y control del tráfico y de la seguridad vial, de custodia y vigilancia de instituciones, bien sea de manera directa o prestando su apoyo a los servicios de seguridad privada encargados de su custodia, de transporte de detenidos presos y penados entre los diversos Centros penitenciarios de la Comunidad Autónoma Vasca y las funciones de investigación y análisis criminal que les correspondan en su ámbito territorial. También velarán por el cumplimiento de las normas de régimen interno y de policía dentro de las dependencias de la Academia de Policía del País Vasco.

Cubriendo la totalidad del territorio de la Comunidad Autónoma Vasca existirán las siguientes Comisarías de la Ertzaintza:

2.1.1.– En Álava.

– Comisaría de Laguardia. Baños de Ebro, Berantevilla, Bernedo, Elciego, Elvillar, Kripan, Labastida, Lagrán, Laguardia, Lanciego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreda da Álava, Navaridas, Oyón-Oion, Peñacerrada-Urizaharra, Samaniego, Villabuena de Álava, Yécora y Zambrana.

– Comisaría de Llodio. Amurrio, Artziniega, Ayala, Llodio, Okondo, Orduña, Orozko y Valdegovia.

– Comisaría de Vitoria-Gasteiz. Alegría-Dulantzi, Armiñón, Arraia-Maeztu, Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Campezo, Cuartango, Elburgo, Valle de Arana, Iruña de Oca, Iruraiz-Gauna, Lantarón, Legutiano, Ribera Alta, Ribera Baja, Salinas de Añana, Salvatierra, San Millan, Urkabustaiz, Vitoria-Gasteiz, Zalduondo, Zigoitia y Zuia.

2.1.2.– En Bizkaia.

– Balmasedako ertzain-etxea. Alonsotegi, Artzentales, Balmaseda, Karrantza Harana, Galdames, Gordexola, Güeñes, Lanestosa, Sopuerta, Trucios-Turtzioz eta Zalla.

– Basauriko ertzain-etxea. Basauri eta Etxebarri Doneztebeko Elizatea.

– Bilbaoko ertzain-etxea. Bilbao.

– Durangoko ertzain-etxea. Abadiño, Amorebieta-Etxano, Arantzazu, Areatza, Artea, Atxondo, Bedia, Berriz, Dima, Durango, Elorrio, Garai, Igorre, Iurreta, Izurtza, Lemoa, Mañaria, Otxandio, Ubide, Zaldibar eta Zeanuri.

– Erandioko ertzain-etxea. Derio, Erandio, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudio.

– Galdakaoko ertzain-etxea. Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Galdakao, Ugao-Miraballes, Zaratamo eta Zeberio.

– Gernika-Lumoko ertzain-etxea. Ajangiz, Arratzu, Arrieta, Bakio, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Laukiz, Lemoiz, Maruri-Jatabe, Mendata, Meñaka, Morga, Mundaka, Mungia, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta.

– Getxoko ertzain-etxea. Barrika, Berango, Getxo, Gorliz, Plentzia, Sopelana eta Urduliz.

– Muskizko ertzain-etxea. Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi eta Zierbena.

– Ondarroako ertzain-etxea. Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz eta Ondarroa.

– Sestaoko ertzain-etxea. Barakaldo, Sestao eta Valle de Trápaga-Trapagaran.

2.1.3.– Gipuzkoan.

– Azkoitiko ertzain-etxea. Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Bidegoian, Errezil eta Zestoa.

– Beasaingo ertzain-etxea. Abaltzisketa, Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Ikaztegieta, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain.

– Bergarako ertzain-etxea. Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga, Oñati eta Soraluze-Placencia de las Armas.

– Donostiako ertzain-etxea. Donostia-San Sebastián.

– Eibarko ertzain-etxea. Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro eta Mutriku.

– Comisaría de Balmaseda. Alonsotegi, Artzentales, Balmaseda, Valle de Carranza, Galdames, Gordexola, Güeñes, Lanestosa, Sopuerta, Trucios-Turtzioz y Zalla.

– Comisaría de Basauri. Basauri y Anteiglesia de San Esteban-Etxebarri Doneztebeko Elizatea.

– Comisaría de Bilbao. Bilbao.

– Comisaría de Durango. Abadiño, Amorebieta-Etxano, Arantzazu, Areatza, Artea, Atxondo, Bedia, Berriz, Dima, Durango, Elorrio, Garai, Igorre, Iurreta, Izurtza, Lemoa, Mañaria, Otxandio, Ubide, Zaldibar y Zeanuri.

– Comisaría de Erandio. Derio, Erandio, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Loiu, Sondika y Zamudio.

– Comisaría de Galdakao. Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Galdakao, Ugao-Miraballes, Zaratamo y Zeberio.

– Comisaría de Gernika-Lumo. Ajangiz, Arratzu, Arrieta, Bakio, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Gauteguiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Laukiz, Lemoniz, Maruri-Jatabe, Mendata, Meñaka, Morga, Mundaka, Mungia, Murueta, Muxika, Nabarniz y Sukarrieta.

– Comisaría de Getxo. Barrika, Berango, Getxo, Gorliz, Plentzia, Sopelana y Urduliz.

– Comisaría de Muskiz. Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi y Zierbena.

– Comisaría de Ondarroa. Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz y Ondarroa.

– Comisaría de Sestao. Barakaldo, Sestao y Valle de Trápaga-Trapagaran.

2.1.3.– En Gipuzkoa.

– Comisaría de Azkoitia. Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Bidegoian, Errezil y Zestoa.

– Comisaría de Beasain. Abaltzisketa, Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Ikaztegieta, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama y Zerain.

– Comisaría de Bergara. Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Mondragón, Bergara, Elgeta, Eskoriatza y Leintz-Gatzaga, Oñati y Soraluze-Placencia de las Armas.

– Comisaría de Donostia-San Sebastián. Donostia-San Sebastián.

– Comisaría de Eibar. Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro y Mutriku.

– Hernaniko ertzain-etxea. Aduna, Alkiza, Andoain, Asteasu, Astigarraga, Hernani, Larraul, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Villabona eta Zizurkil.

– Irungo ertzain-etxea. Hondarribia eta Irun.

– Errenteriako ertzain-etxea. Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenteria.

– Tolosako ertzain-etxea. Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa eta Tolosa.

– Zarauzko ertzain-etxea. Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia.

– Zumarragako ertzain-etxea. Ezkio-Itxaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga.

2.2.– Miñoien, mikeleteen eta foralen atalak.

Foru-erakundeak ordezkatzen dituzte, foru-agintariak babesten dituzte eta foru-ondasunak zaindu eta babesten dituzte. Halaber, errepidezko garraioen zaintza eta ikuskapen-lanak eta errepideen artapen- eta polizia-lanak egin ditzakete, Trafiko Alorrarekin koordinatuta.

3.– Brigada Mugikor Unitatea.

Ordena publikoa zaintzeko prebentzio- eta mantentze-lanak egiten ditu, ordena publikoa berrezartzen du arrisku larriko egoeretan, eta esku hartzea dagokio istripu larri, hondamendi edo lazeria publikoren bat gertatuz gero.

Horrez gain, Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Alorreko eta gainerako Alorretako unitateei laguntzen die uneoro, bereziki jendetzen kontrolean, atxilotuen zaintza eta garraioan eta planifikatutako segurtasun-dispositiboetan. Era berean, Alor ezberdinetako unitateen funtzio eta eginkizunetan osagarri izango da, unitate horien premien arabera.

II.2.– Babesa eta ekintzetarako baliabideak.

Zeregin hauek dagozkio: Arloaren jarduerak koordinatu eta gainbegiratzea, bere eskumenekoa den Polizia Jarduera Kudeatzeko Sistema kontrolatzea eta esleituta dituen giza baliabideak eta baliabide materialak planifikatzea. Halaber, mehatxatuta edo arriskuan dauden pertsonei segurtasun-zerbitzuak emateko ardura dauka.

1.– Helikoptero Unitatea.

Airetik laguntza ematen die alor ezberdinetako unitate eta zerbitzuei, bai prebentzio-lanetan, bai ikerketetan edo esku-hartzeetan. Larrialdiei aurre egiteko zerbitzuei ere laguntza ematen die.

2.– Esku Hartzeko Unitatea.

– Comisaría de Hernani. Aduna, Alkiza, Andoain, Asteasu, Astigarraga, Hernani, Larraul, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Villabona y Zizurkil.

– Comisaría de Irun. Hondarribia e Irun.

– Comisaría de Rentería. Lezo, Oiartzun, Pasaia y Errenteria.

– Comisaría de Tolosa. Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa y Tolosa.

– Comisaría de Zarautz. Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio, Zarautz y Zumaia.

– Comisaría de Zumarraga. Ezkio-Itxaso, Legazpi, Urretxu y Zumarraga.

2.2.– Secciones de Miñones, Mikeletes y Forales.

Tienen como funciones específicas las de representación de las instituciones forales, protección de sus autoridades y protección y custodia de los bienes del patrimonio foral. Asimismo podrán realizar funciones de vigilancia e inspección del transporte por carretera y de conservación y policía de carreteras en coordinación con la División de Tráfico.

3.– Unidad de Brigada Móvil.

Tiene como misión específica la prevención, mantenimiento y, en su caso, restablecimiento del orden público en situaciones de grave riesgo, y la intervención ante situaciones de accidentes, catástrofe o calamidad pública.

También tiene como función permanente el apoyo a las Unidades de la propia División de Seguridad Ciudadana y de Recursos Operativos y del resto de Divisiones, especialmente en el control de masas, la custodia y traslado de detenidos y la participación en dispositivos de seguridad planificados, así como complementar las diferentes funciones y tareas asignadas a las Unidades de las distintas Divisiones según sus necesidades.

II.2.– Protección y recursos operativos.

Le corresponden las tareas de coordinación y supervisión de las actuaciones del Área, el control del Sistema de Gestión de la Actividad Policial de su competencia y la planificación de los recursos humanos y materiales que tenga asignados. Así mismo, es la responsable de la prestación de servicios de seguridad para personas amenazadas o en riesgo.

1.– Unidad de Helicópteros.

Tiene como misión específica facilitar apoyo aéreo a las Unidades y Servicios de las distintas Divisiones, en tareas de prevención, investigación o intervención. Asimismo, ejercerá funciones de apoyo a los servicios de atención de emergencias.

2.– Unidad de Intervención.

Ertzaintzako beste unitate batzuei segurtasun handiko babesa ematen die.

3.– Txakurren Unitatea.

Txakurren bidez, laguntza ematen die Ertzaintzako beste unitate batzuei.

4.– Babeserako eta Segurtasunerako Unitatea.

Babes espezializatuko zerbitzuak ematen dizkie agintariak edo kargu altuak diren edo izan diren zenbait pertsonari eta mehatxatuta dauden pertsonei; horrez gain, enpresa pribatuek emandako zerbitzu hori kontrolatzen du.

5.– Eraikinen segurtasuna.

Segurtasun-zerbitzuak ematen dizkie duten interes edo arrisku bereziagatik zerbitzu horiek behar dituzten eraikin eta instalazioei; horrez gain, enpresa pribatuek emandako zerbitzu hori kontrolatzen du.

III.– Trafiko alorra.

Funtzio nagusi hauek ditu:

– Trafikoa eta errepide-garraioa prebenitzea, zaintzea eta kontrolatzea, Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Alorrarekin lankidetzan.

– Dagozkion istripu eta delituak ikertu eta aztertzea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Trafikoko Lurralde Unitateen bidez.

– Trafiko-arloko laguntza ematea ertzain-etxeei eta Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Alorreko atalei.

Halaber, Ertzaintzaren Zuzendaritzaren eta Herrizaingo Saileko Trafiko Zuzendaritzaren artean erabakitako politikak eta jarraibideak ezarri eta egikaritzeko zeregina dauka.

Beharrezko langileak eta zerbitzuak izango ditu, bere eskumenekoa den Polizia Jarduera Kudeatzeko Sistema gainbegiratu eta kontrolatzeko, eta horretarako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak planifikatu eta kudeatzeko.

Esleituta dituen zereginei erantzuteko, Zerbitzu eta Unitate hauetan dago egituratuta:

1.– Bulego Teknikoa.

Laguntza ematen du Alorreko Unitateen jarduerak zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzeko lanetan, bai eta giza baliabideak eta baliabide materialak planifikatzeko lanetan ere. Halaber, laguntza espezializatua ematen dio Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Alorrari.

2.– Trafikoko Lurralde Unitateak.

Ibilgailuen trafikoa zaindu eta kontrolatu egiten dute araudiz zehaztutako bideetan, eta bide-segurtasuna zaintzen dute. Gainera, errepidezko garraioa kontrolatzen dute, garraio-zerbitzu bereziak

Con funciones de cobertura de alta seguridad a otras Unidades de la Ertzaintza.

3.– Unidad Canina.

Tiene como misión específica el proporcionar apoyo cinológico a otras Unidades de la Ertzaintza.

4.– Unidad de Protección y Seguridad.

Su misión específica es prestar servicios de protección especializada a determinadas personas que ostenten o hayan ostentado la condición de autoridades o altos cargos y a personas amenazadas, así como el control de la prestación de este servicio por empresas privadas.

5.– Seguridad de edificios.

Tiene como misión específica la prestación de servicios de seguridad a edificios e instalaciones que por su especial interés o riesgo lo requieran, así como el control de la prestación de este servicio por empresas privadas.

III.– División de tráfico.

Tiene como función principal:

– La prevención, vigilancia y control del tráfico y transporte por carretera, en coordinación con la División de Seguridad Ciudadana y Recursos Operativos.

– La Investigación y Análisis de accidentes y delitos que le correspondan, a través de las Unidades Territoriales de Tráfico de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

– El apoyo y asistencia en materia de tráfico a las Comisarías y Secciones de la División de Seguridad Ciudadana y Recursos Operativos.

Asimismo, tiene la misión de implementar y ejecutar las políticas y directrices acordadas entre la Dirección de la Ertzaintza y la Dirección de Tráfico del Departamento de Interior.

Estará dotada del personal y servicios necesarios para la supervisión y control del Sistema de Gestión de la Actividad Policial de su competencia y para planificar y gestionar los recursos humanos y materiales necesarios para ello.

Para dar respuesta a las funciones que tiene atribuidas, se estructura en los siguientes Servicios y Unidades:

1.– Oficina Técnica.

Tiene como misión específica la asistencia en las tareas de dirigir, coordinar y supervisar las actuaciones de las Unidades de la División, así como en la planificación de los recursos humanos y materiales. Asimismo, la de dar apoyo especializado a la División de Seguridad Ciudadana y Recursos Operativos.

2.– Unidades Territoriales de Tráfico.

Tienen como misión específica la vigilancia y control del tráfico rodado en las vías reglamentariamente determinadas y la seguridad vial. Ejercen, además, funciones de control del transporte por carretera,

egiten dituzten ibilgailuei eta kirol-saioetako kirolariei laguntzen diete, trafiko-istripuak ikertzen dituzte, Bide Segurtasunaren aurkako delituak jazartzen dituzte, istripu-tasa aztertzen dute eta ertzain-etxeei laguntza espezializatua ematen diete.

IV.– Krimen gaietarako poliziaren alorra:

Delinkuentzia arruntaren esparruan, delitu eta faltak ikertu eta jazartzen ditu, eta datu jakingarriak bilatu eta lantzen ditu, prebentzioan, ordena publikoa eta herritarren segurtasuna zaintzeko. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen erabilera garatzen du segurtasun pribatuaren arloan eta Joko eta Ikuskizunen zaintzan.

Zeregin horiei erantzuteko, Unitate eta Zerbitzu hauetan egituratzen da:

1.– Zerbitzu Zentralen Unitatea.

Krimen Gaietarako Poliziaren Alorreko arduradunari laguntza ematen dio krimenen ikerketarekin eta polizia judizialarekin lotutako lanak zuzendu eta gainbegiratzeko, Ertzaintzako Unitateekin eta Agintaritza eta Kontrol Zentroekin koordinatuta.

Horrez gain, beste Segurtasun Kidego batzuekiko koordinazioa eta kontrola zentralizatzen ditu, krimengaiei buruzko informazioaren arloan.

Halaber, giza baliabideak eta baliabide materialak kudeatzeko zereginak egiten ditu Krimen Gaietarako Poliziaren Alorrarentzat.

2.– Ikerketa Kriminal eta Polizia Judizialeko Unitatea.

Delinkuentzia arruntaren arloan, ikerketa eta informazioa antolatu eta kudeatzeko zeregin orokorra dauka, delituak eta faltak jazartzeko; delitu larriak eta krimen antolatuaren delituak jazartzeko zeregin espezifikoa ere badu.

Egoitza nagusi bat du, eta lurralde-egoitzak lurralde historiko bakoitzean. Polizia judiziala den aldetik, bere eginkizunetan organo judizialen barrutiei egokitu behar zaie, eta kasuan kasu egokiak diren giza baliabideak esleituko zaizkio.

3.– Polizia Zientifikoaren Unitatea.

Polizia zientifikoari dagozkion zerbitzuak egiten ditu, hots, kriminalistika, identifikazio, analitika eta ikerketa teknikoaren arloetako zerbitzuak. Gainera, epai-organoek eskatzen dizkioten peritu-txostenak eta agiri-txostenak egiten ditu.

4.– Joko eta Ikuskizun Unitatea.

Zorizko jokoetan, jendaurreko ikuskizunetan eta jolas-jardueretan indarreko legeria betetzen ote den begiratzen du, eta administrazio-poliziaren eginkizu-

acompañamiento de transportes especiales y pruebas deportivas, investigaciones de accidentes de tráfico, persecución de delitos contra la Seguridad Vial, análisis de la accidentalidad y apoyo especializado a las Comisarías.

IV.– División de policía de lo criminal.

En el marco de la delincuencia común, tiene como funciones principales la investigación y persecución de delitos y faltas y la búsqueda y el tratamiento de informaciones de interés para la prevención y el mantenimiento del orden público y la seguridad ciudadana. Asimismo desarrolla el ejercicio de las competencias de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de seguridad privada y la vigilancia de Juego y Espectáculos.

Para dar respuesta a estas funciones se estructura en las siguientes Unidades y Servicios:

1.– Unidad de Servicios Centrales.

Tiene como misión principal la asistencia al Responsable de la División de Policía de lo Criminal en las tareas de dirección y supervisión de las labores relacionadas con la investigación criminal y Policía Judicial, coordinándose con las diferentes Unidades y Centros de Mando y Control de la Ertzaintza.

Además, centraliza la coordinación y control con otros Cuerpos de Seguridad en materia de información criminal.

Asimismo, realiza funciones de gestión de recursos humanos y materiales para la División de Policía de lo Criminal.

2.– Unidad de Investigación Criminal y Policía Judicial.

En el ámbito de la delincuencia común, tiene la misión general de organizar y gestionar la investigación y la información en la persecución de los delitos y faltas, y la específica de la persecución de los delitos graves y del crimen organizado.

Se estructura en una sede central y sedes territoriales ubicadas en cada Territorio Histórico. Como Policía Judicial, el ejercicio de la función se adaptará al despliegue territorial de los órganos judiciales con la adscripción de los recursos humanos que, en cada caso, procedan.

3.– Unidad de Policía Científica.

Tiene como misión específica la prestación de servicios de criminalística, identificación, analítica e investigación técnica. Asimismo, elabora los informes periciales y documentales que le sean encomendados por los órganos judiciales.

4.– Unidad de Juego y Espectáculos.

Tiene como misión específica la vigilancia del desarrollo, conforme a la legalidad vigente, de los juegos de azar, espectáculos públicos y actividades re-

nak betetzen ditu, Joko eta Ikuskizunen zuzendariaren menpe diharduela.

5.– Segurtasun Pribaturako Unitatea.

Euskal Autonomia Erkidegoan segurtasun pribatuaren eremuko enpresak, langileak eta jarduerak gainbegiratzeko ardura du unitate honek, eta, horretarako, lan hauek egiten ditu: ikuskapenak, kontrol- eta erregistro-lanak eta espedienteen tramitazioa.

Gainera, aholku eta laguntza ematen du eraikinetako segurtasunari buruzko azterlanetan.

V.– Terrorismoaren aurkako eta informazioko alorra.

Zeregin nagusia erakunde terroristek eginiko delituak ikertu eta jazartzea da. Horrez gain, informazio jakingarria bildu, landu eta aztertzen du, askatasunak erabiltzearen eta pertsonen segurtasunaren aurkako mehatxuak prebenitzeko eta ordena eta segurtasun publikoa bermatzeko.

Beharrezko langileak eta zerbitzuak izango ditu, bere eskumenekoa den Polizia Jarduera Kudeatzeko Sistema gainbegiratu eta kontrolatzeko, eta horretarako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak planifikatzeko.

Zeregin horiei erantzuteko, Unitate eta Zerbitzu hauetan egituratzen da:

1.– Ikerketa Unitatea.

Zeregin hau dauka: indarkeriazko taldeek eta talde terroristek eginiko arau-hauste penalen ikerketa antolatu, kudeatu eta zuzentzea. Egoitza nagusi bat du, eta lurralde-egoitzak lurralde historiko bakoitzean.

2.– Informazio Unitatea.

Zeregin hau dauka: intereseko informazioa bildu, landu eta aztertzeko lana antolatu, kudeatu eta zuzentzea, terrorismoa prebenitzeko eta ordena eta segurtasun publikoa mantentzeko. Egoitza nagusi bat du, eta lurralde-egoitzak lurralde historiko bakoitzean.

3.– Ekintzetarako Euskarriaren eta Euskarri Teknikoaren Unitatea.

Zeregin hau dauka: ekintzetarako laguntza eta laguntza teknikoa ematea, ikerketa- eta informaziolanak egiteko.

4.– Koordinazio Unitatea.

Zeregin hau dauka: Terrorismoaren Aurkako eta Informazioko Alorreko arduradunei laguntzea indarkeriazko taldeen eta talde terroristen ikerketarekin eta informazioarekin lotutako irizpide operatiboak koordinatu eta gainbegiratzeko lanetan, lan hori Ertzaintzako unitate ezberdinek egin baitute. Halaber,

creativas, realizando funciones de policía administrativa bajo la dependencia funcional de la Dirección de Juego y Espectáculos.

5.– Unidad de Seguridad Privada.

Es la encargada de la supervisión de las empresas, el personal y la actividad de seguridad privada en la Comunidad Autónoma, ejerciendo funciones de inspección, control, registro y tramitación de expedientes.

Realizará funciones de asesoramiento y asistencia en los estudios que sobre la seguridad en los edificios se le encomienden.

V.– División antiterrorista y de información.

Tiene como funciones principales la investigación y persecución de los delitos cometidos por organizaciones terroristas, así como la recogida, tratamiento y análisis de la información de interés para prevenir amenazas contra el ejercicio de las libertades, la seguridad de las personas y para garantizar el orden y la seguridad pública.

Estará dotada del personal y servicios necesarios para la supervisión y control del Sistema de Gestión de la Actividad Policial de su competencia y para planificar los recursos humanos y materiales necesarios para ello.

Para dar respuesta a estas funciones se estructura en las siguientes Unidades y Servicios:

1.– Unidad de Investigación.

Con la misión específica de organizar, gestionar y dirigir la investigación de infracciones penales cometidas por las tramas y organizaciones de carácter violento y terrorista. Se estructura en una sede central y sedes territoriales ubicadas en cada Territorio Histórico.

2.– Unidad de Información.

Con la misión específica de organizar, gestionar y dirigir la recogida, el tratamiento y el análisis de la información de interés para la prevención del terrorismo y el mantenimiento del orden y la seguridad pública. Se estructura en una sede central y sedes territoriales ubicadas en cada Territorio Histórico.

3.– Unidad de Soporte Operativo y Técnico.

Tiene como misión especifica el apoyo operativo y técnico en la realización de las tareas de investigación e información.

4.– Unidad de Coordinación.

Tiene como misión especifica la asistencia a los responsables de la División Antiterrorista y de Información en las tareas de coordinación y supervisión de criterios operativos relacionados con la investigación y la información de organizaciones de carácter violento y terrorista realizada por las diferentes Unidades

koordinazio- eta lotura-lanak egiten ditu beste polizia eta organismo batzuekin, erakunde terroristen ikerketarekin eta informazioarekin lotuta.

Horrez gain, Terrorismoaren Aurkako eta Informazioko Alorrean giza baliabideak eta baliabide materialak kudeatzen ditu.

5.– Lehergailuak Indargabetzeko Unitatea.

Lehergaiak edo lehergailuak (baita izaera nuklear, erradiologiko, bakteriologiko edo kimikokoak ere) indargabetu behar diren aldi guztietan unitate honek esku hartzen du.

de la Ertzaintza. Asimismo, realiza funciones de coordinación y enlace con otras policías y organismos en materia de investigación e información de organizaciones terroristas.

También tiene como función la gestión de recursos humanos y materiales en la División Antiterrorista y de Información.

5.– Unidad de Desactivación de Explosivos.

Tiene como misión específica la intervención en todas aquellas situaciones que requieran la neutralización de sustancias o artefactos explosivos o de naturaleza nuclear, radiológica, bacteriológica o química.